TOLOSAKO UDALA

2025HASI0008

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, TOLOSAKO UDALARENTZAKO 10 KARROZEN HORNIDURA-KONTRATUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ARAUTUKO DUENA.	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR EN EL CONTRATO DE SUMINISTRO DE 10 CARROZAS PARA EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO**
LEHENENGOA.- KONTRATUAREN XEDEA Kontratuaren xedea karrozak eskuratzea da, eta karroza horiek Tolosako Udalak antolatzen dituen ekitaldietarako erabiliko dira. Karroza horiek Ibilgailu motordun batek atoian eramateko diseinatutako eta pentsatutako autopropultsatu gabeko ibilgailuak izango dira.	**PRIMERA.- OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del contrato es el suministro de diez carrozas que se destinarán a los eventos que organiza el Ayuntamiento de Tolosa, entendiendo por éstas, vehículos no autopropulsados diseñados y concebidos para ser remolcados por un vehículo a motor.
BIGARRENA.- GAUZATZEKO EPEA Karrozak behar bezala hornitu beharko dira Tolosako Udalak adierazitako lekuan, kontratua formalizatu, eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.	**SEGUNDA.- PLAZO DE EJECUCIÓN** Las carrozas deberán ser debidamente suministradas en la ubicación indicada por el Ayuntamiento de Tolosa, en un plazo máximo de 2 meses desde la formalización del contrato.
HIRUGARRENA.- HORNITU BEHARREKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA. Hornidura honen egikaritze-eremuak beharrezko fase guztiak izan behar ditu: diseinua, muntaketa, homologazioa, IAT ziurtagiria eta 10 karrozen garraioa Tolosaraino.	**TERCERA.- CARACTERÍSTICAS DE LOS ELEMENTOS A SUMINISTRAR** El ámbito de ejecución de este suministro debe comprender todas las fases necesarias de: diseño, montaje, homologación, certificado de ITV y el transporte de las 10 carrozas hasta Tolosa.
LAUGARRENA.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK Kontratua formalizatzen denetik karrozak garraiatu arte, enpresa esleipendunak Tolosako Udalak deitutako bileretara joan beharko du, diseinuari, karrozen fabrikazioari	**CUARTA.- SERVICIOS A PRESTAR** Desde la fecha de formalización del contrato hasta transportarlas, la empresa adjudicataria deberá asistir a aquellas reuniones a las que sea convocada por el

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

eta karrozen lekualdaketaren antolaketari buruz aritzeko, eta plataformen diseinua, prestaketa eta lekualdaketa behar bezala antolatzea bermatzen eta laguntzen duten zerbitzu guzti-guztiak koordinatzeko. Bilera horiek aurrez aurrekoak izan daitezke, udaletxean bertan, edo birtualak.	Ayuntamiento de Tolosa, para abordar aspectos de diseño, fabricación de las carrozas y organización del traslado de las carrozas, con el objeto de coordinar todos los servicios que garantizan y contribuyen a la buena organización del diseño, elaboración y traslado de las carrozas. Dichas reuniones podrán ser presenciales, en el mismo consistorio, o virtuales.
BOSGARRENA.- ATOIEN DESKRIBAPENA ETA EZAUGARRIAK Hornitu beharreko atoien deskribapen teknikoak. Eskatutako karrozek desfileetarako fabrikazio-ezaugarri egokiak izango dituzte. Plataformaren txasisaren fabrikazioak fabrika-ziurtagiria (ST42) edo antzekoa duten altzairuekin egingo dira. Atoia edo plataforma ez dira desmuntagarriak izango, ezta ardatzak ere, eta karrozaren lantza burdin estrukturalezkoa izango da, egokigailuarekin, bola duen ibilgailu batek tira diezaion. Desfilatzeko karroza burnizkoa edo metalezkoa eta egitura tubularrekoa izango da, eta gehienez 3.500 kg-ko karga izan beharko du. Desfileetarako karrozaren karrozeriaren ezaugarriak fabrikazio-ezaugarri hauek izan behar ditu: karrozak gainazal laua izango da, sabaia eta alboetako barandak izango dituena egitura lauaren gainean, eta dena erabat soldatuta.	**QUINTA.- DESCRIPCIÓN Y CARACTERÍSTICAS DE LOS CARROZAS** Descripciones técnicas de los carrozas a suministrar. Las carrozas solicitadas tendrán unas características de fabricación propias para los desfiles. Las fabricaciones del chasis de la plataforma se realizarán con aceros con certificación de fábrica (ST42) o similar. El remolque o plataforma no podrán ser desmontables, ni sus ejes tampoco, y la lanza de la carroza será de hierro estructural con adaptador para ser tirada por vehículo con bola. La carroza para desfilar será de hierro o metal y de estructura tubular. También deberá de tener una carga máxima de 3.500 kg. La característica de la carrocería de la carrroza para desfiles tiene que reunir las siguientes características de fabricación: la carroza será una superficie plana que tendrá techo y barandillas laterales encima de la estructura plana, y todo totalmente soldado.

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

Karrozen egiturak eutsi egin behar dio, bereziki baldintza klimatiko kaltegarrien aurrean, hala nola haizearen eta uraren aurrean, egonkortasuna bermatuz eta amiltzea saihestuz. Materialek aire zabalarekiko eta usteldurarekiko erresistenteak izan behar dute; horregatik, karrozak burdinezkoak edo altzairuzkoak izango dira. Azalera lauak neurri hauek izango ditu: • 1m-ko gutxieneko altuera • 2,40m-ko gutxieneko zabalera • 7m-ko gutxieneko luzera • Gehieneko altuera: 1,30m • Gehieneko zabalera: 3m • Gehieneko luzera: 8m Egitura 4 gurpiletan bermatuta egongo da, eta gurpil horiek karrozaren aurrean eta atzean egongo dira banatuta. Nolanahi ere, karrozaren eta haren gainean dauden pertsonen egonkortasuna bermatu beharko da une oro. Baita 5 funtzioko atzeko pilotuak ere. Era berean, perimetro-babes bat izango du, altueran erregulagarria, islatzaileekin seinaleztatua, eta ibilgailuaren behealdera alboetatik sartzea eragotziko duena, ibilaldiak irauten duen bitartean. Figuranteen segurtasuna bermatzeko, karrozek barandak eraman beharko dituzte, segurtasun-arloan eskatzen diren arauzko baldintzak betetzeko behar den altuerarekin,	La carroza tendra que ser una estructura que resista, especialmente ante condiciones climáticas adversas como el viento y el agua, garantizando su estabilidad y evitando su desplome. Los materiales deben ser resistentes a la intemperie y a la pudrición, por ello las carrozas seran de hierro soldado o acero. La superficie plana tendrá las medidas siguientes: • Altura mínima de 1 m • Anchura mínima de 2,40 m • Longitud mínima de 7m • Altura máxima de 1,30 m • Anchura máxima de 3 m • Longitud máxima de 8 m La estructura, irá apoyada en 4 ruedas que estarán distribuidas 2 delante y otras 2 detrás de la carroza. En todo caso deberá garantizarse, la estabilidad de la carroza y de las personas que van sobre ella en todo momento. También pilotos traseros de 5 funciones. Del mismo modo incluirá una protección perimetral regulable en altura, señalizada con reflectantes, e impidiendo acceder a los bajos del vehículo durante la marcha por sus laterales. Las carrozas deberán llevar, para garantizar la seguridad de los figurantes, barandillas con la altura, robustez, rigidez y geometría necesaria para cumplir con los requisitos normativos exigidos en materia de seguridad.

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

sendotasunarekin, zurruntasunarekin eta geometriarekin. Karrozek igotzeko eta jaisteko eskailerarik ez badute, eskailera txiki eramangarri bana izan beharko dute, igotzeko eta/edo jaisteko. Gainera, bertan daudenen segurtasuna bermatuko da baranden bidez edo segurtasuna bermatzeko beharrezkoa den beste edozein elementuren bidez.	En el caso de que las carrozas no tengan integrados escalones para la subida y bajada de las mismas, deberán estar provistas, cada una de ellas, de una escalerilla portátil para facilitar el acceso y/o evacuación de las mismas. Además, se garantizará la seguridad de los/las ocupantes mediante barandillas o cualquier otro elemento necesario para garantizar su seguridad.
Homologaziorako beharrezkoak eta derrigorrezkoak direnak izango dira gurpilak eta ardatzak, garraiatu beharreko kiloak aintzat hartuta. Lizitatzaileak karroza horietarako egokiak direnak proposatuko ditu, ordezko gurpila barne.	Las ruedas y ejes serán las necesarias y obligadas por homologación para los kilos a transportar. El licitador propondrá las adecuadas para estas carrozas, y se incluirá, en todos los casos, rueda de repuesto.
Karrozaren dokumentazioa erabat homologatuta eta dokumentatuta entregatzen da, Europako COC barne.	La documentación de la carroza se entrega totalmente homologado y documentado, incluyendo el COC Europeo.
Karroza matrikulatzea esleipendunaren erantzukizuna izango da, eta Tolosako Udalari matrikulaziorako beharrezkoak diren dokumentu guztiak eman beharko dizkio, bere gain hartuta administrazio autonomikoek eskatzen dituzten zehaztapen edo aldaketa dokumentalak.	La matriculación de la carroza será responsabilidad del/la adjudicatario/a, y debe facilitar al Ayuntamiento de Tolosa todos los documentos necesarios para la matriculación, asumiendo posibles especificaciones o cambios documentales que exijan las diferentes administraciones autonómicas.
Karrozen berme osoa, gutxienez, urtebetekoa izango da, eta ez da berme horretatik kanpo geratuko osagarririk, ez eta osagairik ere; ez eta material-tararik edo fabrikazio-akatsik ere.	La garantía total de las carrozas será de mínimo un año, no quedando fuera de esta garantía ningún accesorio o componente, así como posibles taras de material o fallos de fabricación.
Tolosako Udalak erabakiko du non entregatu, zehazki Tolosako udalerrian, erakunde honek	El lugar de entrega será donde determine el Ayuntamiento de Tolosa, concretamente en el municipio de Tolosa, en las instalaciones de

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

dituen mantentze-instalazioetan. Karrozak sabai bat izango du parte-hartzaileak estaltzeko, eta gutxienez karrozaren hiru laurden estali beharko ditu.	mantenimiento que posee este organismo. La carroza tendrá un techo para cubrir a los/las participantes, que cubrirá, al menos, 3 cuartas partes de la carroza.
SEIGARRENA.- BEHARREZKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA Kontratu honen lizitazio-prozeduran parte hartzen duten enpresek edo pertsonek karroza bakoitzaren ezaugarri teknikoak zehatz-mehatz adierazten dituen dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko dute, honako baldintza hauek barne: • Bakoitzaren argazkiak eta zirriborroak. • Egitura-elementuen deskribapena. • Bola ibilgailuari ainguratzeko sistema. • Erantzukizunpeko adierazpena, indarrean dagoen araudiko karrozen betetze-mailari buruzkoa: 750/2010 Errege Dekretua, Ibilgailu Motordunen eta Atoien Homologazioari buruzkoa. • 2028/1986 Errege Dekretua, ekainaren 6koa, ibilgailu automobil, atoi eta erdi-atoi moten homologazioari eta ibilgailu horien zati edo piezei buruzko EEEren zuzentarau jakin batzuk aplikatzeko arauak ematen dituena. • Hau da, karrozek indarrean dagoen segurtasun-arloko araudi osoa bete beharko dute.	**SEXTA.- DOCUMENTACIÓN TÉCNICA NECESARIA** Las empresas o personas que participen en el procedimiento de licitación del presente contrato, deberán aportar la documentación técnica que indique detalladamente las características técnicas de cada una de las carrozas, incluyendo los siguientes requisitos: • Fotografías y bocetos de cada una de ellas. • Descripción de sus elementos estructurales. • Sistema de anclaje de la bola al vehículo. • Declaración responsable del cumplimiento de las carrozas de la normativa vigente: Real Decreto 750/2010, relativo a la homologación de vehículos a motor y remolques, • Real Decreto 2028/1986, de 6 de junio, por el que se dictan normas para la aplicación de determinadas directivas de la CEE, relativas a la homologación de tipos de vehículos automóviles, remolques y semirremolques, así como de partes o de piezas de dichos vehículos. • Es decir, las carrozas tendrán que cumplir toda la normativa en vigor en materia de seguridad.
ZAZPIGARRENA.- BETEKIZUN TEKNIKOAK	**SÉPTIMA.- REQUISITOS TÉCNICOS**

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

• Karrozek matrikula eta IAT azterketa gainditua izango dute. • Karroza guztiek segurtasun-barandak izango dituzte plataformaren gainean eta sabaian, baita harrapaketen aurkako neurri homologatuak ere plataformaren azpian. • Karrozak esleipendunak garraiatuko ditu, dagozkion aseguruekin, Tolosara eraman ahal izateko.	• Las carrozas contarán con su matrícula y revisión de ITV. • Todas las carrozas contarán con barandillas de seguridad sobre la plataforma y el techo, además de medidas homologadas antiatropello bajo la plataforma. • El transporte de las carrozas será por cuenta del/la adjudicatario/a, con sus correspondientes seguros, para poder trasladarlas a Tolosa.
ZORTZIGARRENA.- LANEN ZUZENDARITZA, KONTROLA ETA JARRAIPENA Kontratatutako horniduraren jarraipena eta koordinazioa egingo du Tolosako Udalak kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, eta esleipendunak dagozkion zuzenketak edo aldaketak egin beharko ditu jasotako jarraibideen arabera. Esleipendunak kontratuaren arduradunaren eta taldeburuaren telefono mugikor bat eta helbide elektroniko bat eman beharko ditu kontratua behar bezala gauzatzeko.	**OCTAVA.- DIRECCIÓN, CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LOS TRABAJOS** El ayuntamiento de Tolosa llevará a cabo el seguimiento y coordinación del suministro contratados teniendo en cuenta las condiciones del contrato, teniendo la obligación el/la adjudicatario/a de llevar a cabo las correspondientes correcciones o modificaciones según las instrucciones recibidas. El/la adjudicatario/a deberá facilitar un teléfono móvil y un correo electrónico del/la responsable del contrato y del/la jefe/a de equipo para la correcta ejecución del contrato.
BEDERATZIGARRENA.- KONTSIDERAZIO BEREZIAK Lan guztiak egiteko eta karrozen hornidura egiteko, gainera, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan: ● Muntaketei dagokienez, enpresak kontuan hartu beharko ditu espazioaren baldintza bereziak, elementu guztietarako sarbide unibertsala bermatzeko.	**NOVENA.- CONSIDERACIONES ESPECIALES** Para la realización de todos los trabajos, así como para el suministro de las carrozas se deberán tener en cuenta, además, las siguientes consideraciones: • La empresa, de cara a los montajes deberá tener en cuenta las condiciones especiales del espacio, para garantizar el acceso universal a todos los elementos.

ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7

• Enpresak, gainera, muntaketa ahalik eta ondoen egiteko beharrezkoak diren lan guztiak egin beharko ditu. Kontratuaren xedearekin lotuta sor daitezkeen gorabeherak bere bitartekoekin estali beharko ditu.	• La empresa deberá realizar además todos aquellos trabajos necesarios para lograr el mejor desarrollo de los montajes, cubriendo con sus propios medios las eventualidades que puedan surgir en relación con el objeto del contrato.
HAMARGARRENA.- UDALAREN ETA ESLEIPENDUNAREN ARTEKO HARREMANAK Esleipendunari dagokio: Kontratua gauzatzea, agiri honetan, administrazio-klausulen agirian eta kontratazio-organoaren jarraibidean zehaztutakoaren arabera. Garatzen dituen lanen kalitate teknikoaz arduratzea. Beharrezkoa denean, bilerak egingo dira enpresaren ordezkarien eta kontratuaren arduradunaren artean. Kontratuaren garapenari buruzko gaiak: Gainera, gorabeheraren bat gertatzen den bakoitzean, kontratuaren arduradunak aukera izango du enpresaren ordezkariarekin harremanetan jartzeko, unean uneko erantzuna behar duen egoera baten aurrean nola jokatu erabakitzeko. Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.	**DÉCIMA.- RELACIONES ENTRE EL AYUNTAMIENTO Y LA ADJUDICATARIA** Corresponderá a la adjudicataria: Ejecutar el contrato en las condiciones técnicas previstas en el presente pliego, en el pliego de cláusulas administrativas y con arreglo a las instrucciones del órgano de contratación. Responsabilizarse de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle. Cuando sea necesario, se celebrarán reuniones entre representantes de la empresa y el/la responsable del contrato. Cuestiones sobre el desarrollo del contrato: Además, cada vez que se produzca una incidencia, el/la responsable del contrato podrá ponerse en contacto con el/la representante de la empresa, para acordar la forma de proceder cuando se trate de una situación que requiera una respuesta puntual. En Tolosa, el día de la firma electrónica.

Nork Sinatua / Firmado por: IYUYA URRUTIA GOYA - 72479780H
2025/09/08 12:28:26

EKS | CSV: ESKUa089bc6f-1ecd-40ec-9651-260ca41658b7
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110